

Ez dok amairu tradizioa eta modernitatea, nortasunaren bila

(Ez dok amairu, tradition and modernity,
looking for identity)

Aurtenetxe Zalbidea, Auritz

Eusko Ikaskuntza. Uribitarte Pasealekua, 10 behea. 48009 Bilbo
aurtezal@euskalnet.net

Jaso: 2009.06.05

BIBLID [1137-859X (2010), 12; 135-157]

Onartu: 2010.12.11

Euskal Herrian 60. hamarkadaren erdialdera Ez dok amairu izeneko mugimendu kultural berria jaio zen. Ordurako, euskal musikagintza, hizkuntza eta kultura adierazpideak, Estatuko beste autonomi erkidegotako adierazpen kulturalak bezalaxe, kolokan zeuden gobernu diktatorialak eragindako politikaren ondorioz. Mugimendu kultural berriarekin eta sortu zen Euskal Kantagintza Berriaren bitartez, tradiziozko kultura berreskuratuz eta berinterpretatuz euskal kulturak, euskarak, musikagintzak eta gizarte aldarrikapenek aurrera egiteko bultzada izan zuten. Euskal kulturak berpizte garaia ezagutu zuen mugimendu berriaren eskutan.

Giltza-Hitzak: Ez dok amairu. Euskal Kantagintza Berria. Baga biga higa sentikaria. Nortasuna. Berpizte kulturala.

A mediados de la década de los 60 Euskal Herria vio nacer un nuevo movimiento cultural que tomó por nombre Ez dok amairu. En aquel momento, la música, el idioma y cualquier otra expresión de la cultura vasca, así como la expresión cultural de otras comunidades autónomas del Estado, se hallaban amenazadas por la política que el gobierno dictatorial puso en práctica. El nuevo movimiento cultural, la nueva canción vasca y la recuperación y reinterpretación de la cultura tradicional impulsaron el desarrollo de la cultura vasca, el euskara, la música y las reivindicaciones sociales. La cultura vasca vivió entonces un periodo de renacimiento de la mano de aquel movimiento.

Palabras Clave: Ez dok amairu. Nueva canción vasca. Espectáculo Baga biga higa. Identidad. Renacimiento cultural.

Au milieu des années 60, Euskal Herria a vu naître un nouveau mouvement culturel appelé Ez dok amairu. À cette époque, la musique, la langue et toute autre expression de la culture basque, ainsi que l'expression culturelle des autres communautés autonomes de l'État, se trouvaient menacées par la politique que le gouvernement dictatorial avait mise en place. Le nouveau mouvement culturel, la nouvelle chanson basque et la récupération et réinterprétation de la culture traditionnelle ont encouragé le développement de la culture basque, l'euskara (langue basque), la musique et les revendications sociales. C'est à cette époque que la culture basque a vécu une période de renaissance grâce à ce mouvement.

Mots-Clés : Ez dok amairu. Nouvelle chanson basque. Spectacle Baga biga higa. Identité. Renaissance culturelle.

1. SARRERA

Euskal kanta heldutasunera iritsi bide da. Azken 12-15 urte hauetan hazkuntza bizia izan du, eta zein emankorra! Ez da egongo euskal herririk jaialdiren bat izan ez duenik. Irrati bidez eta kantarien mugikortasunari esker, Euskal Herriko bazter guztietara iritsi da euskal kanta.

Eta kantarekin batera euskal kultur mugimendua. Kanta da, izan ere, mugimendu horren barruan Euskal Herriak izan duen komunikabiderik arinena, zuzenena. Hitz idatzia- ren aldean abantail handia daukana: denetan ulerterrazena da. Hortxe dagoke haren arrakastaren arrazoirik nagusienetako bat. Eta horri esker egin ahal izan du, hein batetan bederen, euskal kulturaren herritartzea¹.

1960. hamarkadaz geroztik, Euskal Kantagintza Berriaren sorrerarekin batera, *Ez dok amairu* mugimendu kulturalarekin hain zuzen, kantagintzaren bidez euskal gizartean komunikabide bide berri bat irekiko da. Mugimendu berriaren sorrera, Estatuko beste Autonomia Erkidegoetan bezala testuinguru politikoak bultzatua sortu zen. Estatu mailan eman zen kanta genero berria eta Euskal Herrian sortutako *Ez dok amairu*-k bat egin zuten kantagintza adierazpen berriak kaleratzeko bidea izango zenaren planteamenduarekin. Horrela, itxaropenari, bizitza berri bati, gizartearen ustelkeriari, askatasunari, justiziari, bakeari eta elkartasunari abestuz berezko nortasuna aldarrikatu, injustiziak salatu, herriari kontzientziaren beharra azaldu, itxaropena transmititu eta herriko literatura jende- ari hurbiltzen saiatuko zen kantagintza berria.

Hurrengo kantak, beste askoren artean, mezu horren adierazleak izan ziren, Benito Lertxundik abestutako *Umeak ere jakin dute*, *Ezin uka*, *Gazte sentimental*, *Sasi intelektualei* eta *Zenbat gera*. Mikel Laboak interpretaturiko *O Pello*, *Pello*, *Haika mutil*, *Bereterretxen kanthoria*, *Egun da santi mamiña*, *Gaberako aterbea*, Maite Idirinen *Bein batez* edota *Indioaren bidea*. Xabier Leteren *Euskalerrri nerea*, *Maiteaz galdezka*, *Seaska kanta* eta Lourdes Iriondok abestu- tako *Nora zoazte*, *Askatasuna zertarako*, *Gaztedi berri-zalea* edota *Kitarratxoa eta euskara*. Julian Lekuonaren *Errege Baltaxarren balada* eta *Txoeko autoan* edota Labeguerieren *Aurtxo-aurtxoa*, *Gudari euskaldunaren kantua* edo *Bakearen urtxoa*².

1960 eta 1970. hamarraldian kantagintza berria izeneko mugimenduaren baitan kaleraturiko errepertorioko kante- k euskal kultura plazaratzeaz gain, euskal gizartean talde izaera bultzatu zuten. Garaian bizi zen egoera politikoaren ondorioz, frankismoaren ondorioz, euskal kultura, euskara eta euskal gizarteak errepresio bortitza jasan zuten. Estatu espainiarraren interesa euskal adierazpenekin buka- tzea izanik, kantagintza, adierazpenerako, aldarrikapenetarako, bide berria bilaka- tu zen, euskal gizartean nortasun baten bilgune izanik. Kanten bidez eta batez ere 1970. hamarkadaren erdialdera, jaialdien bidez talde izaera presente zegoen, kante- k norbanakoa talde baten parte izatera lagundu zuten. Prozesu horretan

1. *Jakin*. "Euskal kanta, heldutasun bidean". In: *Jakin*, 4 zenbakia, 1977 Urria-Azaroa; 5.

2. Kanta hauek garaian kaleratu ziren diskoetatik aukeratuak izan dira, kontutan izanik gizar- te- a gaur egun duten presentzia.

Simon Frith soziologo eta rock musika kritikoaren hausnarketei jarraituz, kantagintzak, musika herrikoi guztiak bezala, funtzio bat bete zuen euskal gizartean.

Norbanakoaren bizitza pribatua eta publikoaren arteko lotura posiblea egin zuen, horrela bakoitzaren esperientzia propioak konpartituak izan ziren kontzertu eta jaialdi ezberdinetan, kanten mezuetan egunero bizi ziren jazarpenak, eskubide murrizketak eta gizartearen egoera latza islatzen baitzen. Era berean, emanaldiak jendearekin konpartitzerakoan Simon Frith-ek “fan” fenomenoari buruz hitz egiten du, kantagintzaren kasuan gustua eta auto-definizioaren arteko lotura sortuz. Hortaz, jaialdi zein kontzertuetara gerturaturiko jendea fan baino euskal kulturaren aldeko gustu eta jarrera konpartitu zituen, norberaren burua definituz. Auto-definizio horren bidez ikusleak gizartean toki bat, berea, bilatzen du, norberaren izaera gizartean esparru bat okupatuz. Era berean, kantagintzaren bitartez memoria pertsonalak forma hartzen du, denbora zentzua antolatuz eta norberaren esperientziak handituz, kanten bidez esperientziak denbora jakin batean kokatuz.

Kantagintzak norbanakoaren nortasuna era kolektiboan konpartitzeko gaitasuna izateaz gain, 1960. hamarraldiaren erdialdera sorturiko adierazpen modu berriaren bidez nazio-nortasunaren defentsa garatu egin zen, horretarako kantagintzan inplikaturik zeuden esanahi sozial eta politikoen garrantzia zein euskararen erabilera ezinbestekotzat bilakatu ziren besteengandik desberdintzeko nahi horretan.

Marc Bioska-k argitaraturiko *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka?* liburuan esandakoa baieztatzen du³,

Giza komunitate baten pertinenzia-sentimendua mugatzeko interesatzen zaigun elementua, hizkuntza da. Mundua zehazteko, irudikatzeko eta objektibatze erabiltzen den harako sinbolo-sistema hartatik dator hizkuntza. Bera da segur aski sistema desberdintzaile, sendo eta esanahitsuenetako bat.

Kanten mezuetan hizkuntza, kultura eta lurraldearen arteko batasuna presente dago beti, bata bestetik ezin bereizi den eta aldi berean proiektu identitarioaren abangoardiazko erreferente gisa behar-beharrezkoa den zerbait bezala. Batzuen ustez, orientazio ideologiko horren arrazoia hizkuntzaren beraren baitan aurki daiteke, euskarak izakia espazio fisikoan kokatzen duten forma lexiko asko erabiltzen dituelako.

Genero (kantagintza) honen bidez agerian geratzen da berriro nazio-nortasunaren eraikuntzaren alderdi sinboliko eta sozialen arteko harreman dialektikoa. Hitzek zein idatziz hainbestetan aipatzen den identitatearen axioma horrek garenaren eta ez garenaren arteko bereizketan gordetzen du bere ahalmen guztia. Hau da, gutarrak, batetik, kanpotarrak, bestetik. Horrek espazio fisiko jakin batean finkatutako izakiaren ikusmoldera garamatza: espazioak identitate bat ematen dio izakiari, gero hark atribuziozko praktika sozialen bidez errito bihurtuko duena.

Hortaz, Estatu Espainiarrean sortu zen kantagintza berriaren sorrerak hartu eman zuzena du talde ezberdinen nortasunaren defentsarekin, kanta arma bihurtuz.

3. BIOSCA, Marc. “Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka? Euskaldunak eta katalanak zein bere nazioari kantari”. Irun: Alberdania, 2009; or. 31-32.

2. KANTAGINTZA BERRIA

1960. hamarkadan bizi zen egoera politikoari aurre egiteko era asko egon ziren, euren artean sortutako mugimendu kulturala, poetez, dantzariz, artistez, margolariz, olerkariz eta musikariz osatua, Euskal Herrian kantagintza komunikabide garrantzitsua bilakatuz.

Kantagintzaren bitartez, gal zorian zeuden tradiziozko kantak plazaratu ziren baita kanta berriak ere, musika jendeari hurbiltzeko intentzioarekin eta era berean euskal nortasuna agerian uzteko asmoz. Horrela, kantuen mezuek eta euskararen erabilerak publikoaren eta musikarien arteko konplizitatea sortu zuten, gizartean komunikazio bide berri bat irekiz baita inplikazioa lortuz.

Horren adierazle gisa eta kronologikoki antolatuak agertuko dira Xabier Lete, Anton Valverde, Lourdes Iriondo eta Urko kantariak kantagintzak gizartean bete izandako funtzioari buruz egindako adierazpenak.

Xabier Letek eta Anton Valverdek 1977-09-01ean⁴ *Deia* aldizkarian azpimarratzen zuten kantagintzak izandako izaera politikoa,

Orain arte, euskal kanta eskakizuneko eta eragilea izan da; aurrerantzean mediatizozkoa izan beharko du. Euskal gizartearen errealitatea konplejoagoa izango da, eta adaptazio bat egin beharko da.

– Deia: Zelan ikusten duzue euskal kantarien politizazioa?

– A. Valverde: Euskal kantarien politizazioa uka ezinezko da. Baina ez da gure artean bakarrik gertatzen. “Herri kanta” izenekoan ari diren guztien artean gertatzen da. [...] Inguru politiko batean bizi gara, eta inguru horren lekuko gara. Azken hilabeteotako kantaldiak mitin hutsak izan dira.

Elkarriketa berdinean agerian geratzen da kantagintzak naziogintzan burututako papera⁵,

– X. Lete: Política zentzua ere argitu beharra dago. Nazio baten oinarritzko eskakizun-burrruka izan da batez ere orain arte. Eta política honetan, kantari guztiok, gehiago edo gutxiago, aritu izan gara. Baina ez gaitu politikak egin,

– D.: Euskal Herrian ez dagoela kantari neutrorik esango zenuke...

– X. Lete: Definizio bezala, Euskal Herrian ez dago, Katalunian Serrat bezala, kantari neutrorik. [...]

Bestetik, politika nortasunaren parte bat da. Beste problema eta arazo batzuk ere badira. Eta kantariak ez du bere tematika mugatu behar. [...] Harrigarria da zein gutxi lantzen diren kantagintzan; gai anekdotikoak, sentimentalak, ironikoak, amodiozkoak, afektibitatea eta beste honelako gai asko.

4. L. A. A. “Euskal gizartea aldatzen den neurrian aldatu beharko du”. In: *Deia*, 1977-09-01.

5. Id.

Sei urte beranduago Lourdes Iriondok, 1983. urtean, *El Diario Vasco* egunkarian kantagintzak gizartearekin izandako hartu emana gogoratzen zuen, eragile eta komunikazio bidea⁶,

- Diario Vasco: Tu música, tus canciones, en el momento en que se desarrollaron, ¿tendían a conseguir algo?
- L. Iriondo: Así es: trataban de conseguir algo. Había una realidad en el país y yo trataba de influir. Y el éxito de nuestra labor fue indudable, todo el mundo lo sabe, no es preciso que me explaye ahora en ello. La canción nuestra fue un medio de reconciliación de nuestro pueblo, y fue así, acaso, porque fue hecha en el momento adecuado.

Egun, eta urteek eman dezaketen perspektiba kontutan hartuz Urkok gogoratzen du⁷:

Garai hartan ia-ia ez ginen kantariak, politikariak ginen, eta musikarekin muntatzen genituen gure mitinak. Garai arriskutsuak eta gogorrak ziren. [...] Lehen beti preso-opean, eta oso politizatua zegoen dena, eta gu nahi eta nahi ez politikarien funtzioak egiten.

Agertutako musikari ezberdinen hiru adibideetan, bizi zen testuingurua eta kanten mezua kontutan izanik 1960. hamarkadan sortutako kantagintza berria gizarte eragile izan behar zuen, gizarteak hala eskatzen zuelako. Kantaldiak elkargune bihurtu ziren, bertan talde izaera eta talde nortasuna bultzatuz, norberaren esperientzia pertsonalak publikoki eta lagunartean konpartitzen ziren, aldarrikapen eremuak bihurtuz.

2.1. Kantagintzaren lehen urratsak

Joan Baez, Bob Dylan, Jacques Brel, George Brassens, Atahulapa Yupanki edota Violeta Parrararen kantak Euskal Herrian zein Estatu Espainiarreko hainbat lurraldetan sortuko zen kantagintza berriaren oinarri izan ziren.

Katalunian, Estatu Espainiarrean kantagintza berriaren aitzindarien kokaleku, mugimendu berriarekiko ideia 1950. hamarkadaren amaieran Josep Benet-ek, Lluís Serrahima-k eta Miquel Porter-ek agertu zuten, kantagintza berri honen lehenengo agerpena 1961. urtean Bartzelonan eman zutela, hain zuzen ere kataluniar olerkigintzaren, *Nova Cançó*-ren, aldeko ekitaldi batean.

Nova Cançó ideiarekin agerpenak Estatu Espainiarreko Autonomia Erkidego ezberdinetan sortuko ziren mugimendu kultural ezberdinen eta kantagintza berri baten lehenengo urratsa suposatu zuen.

6. MENDIOLA, José Mari. "Lurdes Iriondo: "Xabier Lete es mucho mejor cantante que yo". In: *El Diario Vasco*, 1983-06-19.

7. ARRUTI, Ane; BILBAO, Anartz. "Euskal kantagintzaren nostalgia". In: *Gara*, 2009-03-13.

Nova Cançó mugimenduaren barruan, musikariz osaturiko *El Setze Jutges* izenarekin ezagutuko zen lehendabiziko taldea sortu zen. Taldearen izena Kataluniako aho korapilo herrikoi batetik atera zuten, berarekin garaian bizi zen gizartearen errealtatearekiko kritika adieraziz. Horrela, batzuentzat, taldearen agerpenarekin, “periferikoak” ziren kultura batzuk berreskuratzen hasiko dira.

Horrela kantagintza berria edota kantautore generoa leku geografiko ezberdinetan emango da, Euskal Herrian *Ez dok amairu* taldearekin (1964), Galizian *Voces Ceibes* (1968) taldearekin, Gaztelan *La Voz del Pueblo* (1967), Kanarietan *Canarias: Pueblo, Palabra y canción* (1969) eta Andaluzian *Canción del Sur* (1969) besteak beste⁸. Mugimendu kultural ezberdinek bultzatutako lanarekin batera bakarka abesten zutenen lana aipatu behar da, besteak beste Paco Ibañez-en kasua, zeinek egun 1960en hamarraldian bezala abesti forman jartzen ditu olerkari garrantzitsuen olerkiak.

Bestalde, kontutan izan behar da komunikabide gehienek “Canción Española” bezala izendaturiko kanta motaren alde egingo zutela, nolabait berau promozionatuz eta Espainia bateratu eta zentralista baten aldeko ideologia islatuz. Ondorioz, boteretik Estatu Espainiarreko kultura eta hizkuntza ezberdinak eraso bortitzak jasan zituzten, euren identitatea gutxietsi eta ezeztatu nahiaren barruan.

Kantautore genero berriak momentu hartan Espainiar Estatuak ezarri nahi zuen kanta mota batekin apurtu zuen, kantagintza berriaren bidez gizartearen aldarrikapenak eta pentsamenduak adierazten baitziren.

Kantagintza berri honen ekarpen garrantzitsuenetariko bat herri literatura jendeari hurbiltzea izango da, berpizte kulturalaren nahia mugimendu kulturalen ardatzetako bat izanik. 1960en hamarkadaren hasieran, *Nova Cançó*-koek adierazi zuten moduan, euren helburuetariko bat kanta herrikoiak erabiliz hizkuntza-ren normalizazioa lortzea eta eguneroko aldarrikapenak kaleratzea ziren. Ondorioz kantagintza berriak, zigorrak, isunak eta zentsura jasango zituen, horregatik kantautore generoa protesta abesti gisa kalifikatu zen.

3. EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA

3.1. Aitzindariak

Nahiz eta Euskal Kantagintza Berria *Ez dok amairu* izeneko mugimendu kulturalarekin lotua izan den, mugimenduaren aitzindaritzat Nemesio Etxaniz eta Michel Labeguerie abeslariak kontsideratuak izan dira, beraiek kantagintza berri-zeko lanean ziharduten abeslari gazteak gitarra eskuan hartuta bakarka eta euskaraz abesten agertu zirenean. Gero, gazte horiek *Ez dok amairu*-ko partaide bihurtuko ziren.

8. GONZALEZ LUCINI, Fernando. *De la memoria contra el olvido: Manifiesto Canción del Sur*. Madrid: Junta de Andalucía, consejería de cultura ; Iberoautor promociones culturales, 2004.

Nemesio Etxaniz apaiz azpeitiarra euskal kantagintzaren aitzindarietako bat dugu. Berak helburutzat euskal kantagintza berri bat sortzea zuen, Estatu Espainiarretik zein atzeritik zetozen aire berriei aurre egiteko asmoz. Eta horrela agertu zuen 1951. urtean kaleratutako *Kanta kantari* liburuaren hitzaurrean idatzitakoa⁹.

Nuestra juventud, por medio de la radio, de los bailes y del cine, está recibiendo actualmente un vendaval de música exótica, que va invadiendo hasta los más remotos caseríos.

Musikagintzan entzuten ziren kutsu berriko kantei aurre egiteko euskarazko kantak sortzearen beharra aurkeztu zuen, helburua euskal nortasuna defendatzeko bidea zela azpimarratuz. Atzeritik zein Estatutik heltzen ziren kanta berri horien bidez euskal nortasuna bi arlotan ikusten zuen zapaldua Nemesio Etxanizek. Alde batetik zapalketa moralari zegokionez “que abate nuestras costumbres seculares, plenas de sobriedad y medida”, eta beste alde batetik hizkuntzarekiko zapalkuntza azpimarratzen zuen, “contra nuestro idioma, que se ve desterrado de los labios de nuestra juventud en este terreno de las canciones”.

Horretarako kanta berriak asmatu zituen eta tradiziozko hainbat kanta garai-ko gustuetara moldatu ere, olerkari zein musikariak sormeneko bide berrietan inplikatzeko asmoaz,

[...] te brindo algunas canciones nuevas, tanto en su parte musical como en el texto que le acompaña. Otras en cambio, son de la cantera popular, y te las presento remozadas con un texto nuevo¹⁰.

Tradiziozko kanten berritzeari garrantzi handia eman zion, hauek modaz kanpo ikusten baitzituen, gazteengandik urruti geratzen zirelarik¹¹,

Para combatir este perniciosa influencia no son suficientes las canciones antiguas de nuestro folklore [...] las canciones de nuestro viejo repertorio resultan gastadas, ñoñas y desprovistas de ese atractivo de la canción moderna.

Berritutako kanta eta asmatutako kanta berrien bitartez gazteriari bertoko nortasuna mantenduz eta euskara erabiliz gauza modernoak egin zitezkeela erakusteko nahia agertu zuen, “remocemos los cantos de nuestra vieja cantera, con textos más cuidados y apropiados al gusto de la juventud actual”¹².

Bigarren aitzindaria Uztaritzen jaiotako Michel Labeguerie politika gizona dugu. Bigarren munduko gerratearen urteetan, 1943, Uztaritzen sortu zen “Euskaldun Gazteen Batasuna” elkartearen parte hartu zuen euskal kantak eta dantzak biltzeko helburuarekin.

9. ETXANIZ, Nemesio. “Kanta kantari, aur jolasak, maite kantak, izadi abestiak”. Donostian, 1951en urtean kaleratutako liburuaren hitzaurrean agertu zituen egileak kantagintzarekiko bere asmoak.

10. Id.

11. Id.

12. Id.

Labeguerie kantuen bitartez hizkuntza eta euskal kontzientziak jasaten zituen errepresioaren kontra egin zuen. Euskal kantuen melodiak berritu zituen, zortziko erritmoa lan berrietan erabili zuen baita tematika aberats bat sortu ere. Horrela gitarra lagunduta tendentzia berriko euskal abestiak sortu zituen. Beste batzuen artean *Aurtxo-aurtxo*, *Gudari euskaldun baten kantua* edota *Gazteri berria*.

Euskal kantagintzaren aitzindariengan kulturalki Euskal Herrira heltzen ari ziren eredu berriei aurre egiteko beharra zegoela ikusten da, behar hori euskal nortasunaren defentsarekin loturik agertuz. Ondorioz, etorkizunean, gazteriaren gustukoak izan zitezkeen erritmo eta doinu berriak euskaraz sortuz eta zabalduz, euskaltasuna era batean salbu egongo zen.

3.2. *Ez dok amairu*-ren jaiotza

Euskal Herrian akademiak faltan egoteagatik musika kantagintzara murriztu zen, adierazpen herrikoienara. 1965en urtera arte euskal kantagintza aurreko urteetan bezala bizi zen: Azkueren kantutegia, Aita Donostiaren konposizioak, Usandizagarenak, Guridi eta Soroabalenak erreferentzia zirela.

1965 urte aldera eszenatokietara gazte batzuk igotzen dira, gitarra eskuan dutela, momentuko estereotipoarekin apurtu nahi dutelarik¹³.

Horrela mintzo zen L. Etxaniz kantagintza berriaren sorreraz. Berritzat musikari gazteek musikalki zein estetika mailan, gitarra eskuan, egingo dituzten ekarpenak azpimarratuz.

1964en urtean Mikel Laboak *Azken* izeneko lehenengo diskoa kaleratu zuen tradiziozko hiru kantez, *Oi Peio Peio*, *Bereterretxan kanthoria* eta *Aurtxo txikia* eta Jean Barbier-en *Amonatxo* izeneko kantez osatua.

Ordurako kataluniar mugimenduaren ezagupena eta *Nova Cançó*-ko kideekin hartu emanak izan zituen Laboak eta Euskal Herrian antzeko zerbait egiteko ideia zabaldu zuen, euskal mugimendu kultural berriaren lehen urratsak emanez.

Lehendabizi Benito Lertxundirekin jarri zen harremanetan, eta gero Lourdes Iriondorekin, biak bakarkako lanean, lehiaketa ezberdinetan murgildurik zebiltzala.

Talde eta kantari berriek, orduan antolatzen diren sariketetan parte hartzen dute, oportunitatearen bila "Artistas noveles" izeneko sariketetan ezagutzen ditugu¹⁴.

Beraz ideia presente zegoen, kontaktuak eginak zeuden eta 1965 urtearen amaieran Joxean Artzek¹⁵ eta Mikel Laboak Jorge Oteizarengana jo zuten, euren

13. ETXANIZ, L. "Euskal kantari hurbilketa kritikoa". In: *Jakin*, 4 zenbakia, 1977 Urria-Azaroa; 33.

14. IRAOLA, Markox; XALBARDIN. *Euskal kantagintzaren aldaketak ulertu nahiz. Larrun 2* zenbakia, abendua, 1985; 58.

15. Jose Anton Artze, Joxean Artze bezala agertuko da testuan zehar eta *Ez dok amairu* taldeak kaleratutako espektakuluaren esku programatik ateratako pasarteetan Joxan Arza bezala agertuko da.

asmoa kontatzera. Orduan, Oteizak taldeari *Ez dok amairu* izena jarri zion, Resurrección Maria de Azkueren *Euskalerrriaren jakintza* liburuan jasotako Martin errementariaren istoriotik hartutako izena izanik.

Taldeari izena Oteizak jarri bazion, logotipoa, txalaparta, Remigio Mendiburuk egin zuen.

Ez dok amairu taldearentzat 1966ko martxoaren 20tik aurrera, Irunen emandako lehendabiziko agerralditik, 1970 urte bitartera profesionalizatzeko bidea izan zen, eta orduan erakutsiko zuten lortutako maila eta kalitatea *Baga, biga, higa Sentikaria* izeneko espektakuloaren bidez.

Muntai hau taldearen elkarlanaren fruitua baino, taldearen desagitearen lehen pausoa izan zen.

3.3. *Ez dok amairu*ren helburuak

Mikel Laboak Azken izeneko diskoaren aurkezpenaren inguruan 1965. urtean *Zeruko Argia* aldizkarian kaleraturiko elkarrizketan honakoa aurreratzen zuen¹⁶:

- Zeruko argia: Duela egun gutxi, disko berri bat entzun nuen, Mikel Laboaren lehen diskoa. Antzinako abestiekin osatu du bere eresorta, baina haren abesteko erak eta gitarraren akordeak soinu zaharrak, esnatu bakarrik ez baizik eta gaztetu, era honetako aire berri bat ematen die. [...]
- Mikel Laboa: Amonatxo izan ezik (Barbier da egilea) beste guztien egilea ezezaguna da, hortik atera urte batzuk izango dituztela... gainera beren gaia... [...] (kanta hauei) “O Pello Pello”, “Aurtxo txikia”, “Bereterretxen” eta “Amonatxo” erritmoa zerbait berritzeak ez dio sustraia aldatzen abestiari, gainera interprete bakoitzak beti eman behar dio bere estiloa.

[...] Abesti zahar hauek oso gutxi ezagutzen dituzte, nik uste dut beharrezkoa dela jendeari ezagutu araztea. Gainera hori lehendabiziko pausoa da, bigarrena berriak eratzeko litzake.

Nemesio Etxaniz lehendabizi eta Mikel Laboa ondoren kanta tradizionalen berritzea argi eta garbi proposatu zuten, baita berriak egitea ere, nahiz eta Laboak azpimarratzen zuen bezalaxe, helburu nagusia tradiziozko erreperatorioa zabaltzea izango zen, jendeak ezagutzen ez zituen kanta horiek erakustea alegia. Nemesiok aldiz, ez zuen galdurik ikusten zuen erreperatorioaren aldarrikapenik edota aipamenik egiten, kantak modu berri batean agertuz gero, jendeak ezagutzen zituela koan zegoen, garaiko moldeetara egokitzea izango zen garrantzitsuena.

Lehendabiziko urratsetan murgildurik zegoen Euskal Kantagintza Berriaren lehendabiziko helburua “kanta zaharrak” berriz plazaratzea izango zen, hau da

16. “Mikel Laboa”. In: *Zeruko Argia*, 127 zenb., 1965-08-01.

kanta tradizionalak errekuaratu nahi ziren, ahaztuak edo gal zorian zeuden kanten berjabetza eginez hutsune bat bete nahi zen, nazio-nortasunaren aldarrikapena.

Abeslarien lana hizkuntzaren eta abertzale kontzientzia berreskuratzea zen. Abeslari bakoitzak bere erara abesten zuen herriaren arazoa, baina denak abesten zuten euskal gizarte aske baten alde eta borrokaren alde. Abeslarien jarrera hau, folklorista batzuentzat mugimendu berria kritikatzeko aitzakia izan zen¹⁷.

Hortaz, *Ez dok amairu* mugimendu kulturalaren hasierako pausoa, hizkuntzaren, euskararen eta abertzaletasunaren berreskuratzea izango dira, horretarako euskararen erabilerarekin batera, tradiziozko kanten indarra hartuko dute. Horrela kanten eta hizkuntzaren arteko erlazioaz gain, nortasunaren ideia mugimenduan eta kantagintzan islatuz.

Tradiziozko kantenikiko antzinakotasunaren, anonimoaren eta ahozotasunaren ideia erromantikoak, autentikoagoa bilakatzen zuen erreperatorioaren erabilera.

Kanten berreskuratzea eta berjabetzaz gain *Ez dok amairu* mugimendu kulturalak 1970. urtean aurrera pauso bat emango du *Baga Biga Higa Sentikaria*-ren sorrerarekin.

Euskararen eta abertzale nortasunaren berreskuratzearekin batera, Laboak esan zuen bezala, kantutegietan jasoak zeuden kanta tradizionalak erakutsi nahi ziren, baita lan berriak eta gal zorian zeuden musika tresnak berreskuratu eta plazaratu.

Iraganera, tradiziara begiratzeaz gain, modernitatera, edota hobe esanda garaiko joera eta bide berriak lantzeko asmoa azalduko zuen taldeak *Baga Biga Higa Sentikaria* espektakuluaren bidez.

4. BAGA, BIGA, HIGA... SENTIKARIA

Baga Biga Higa Sentikaria plazaratu zen urterako, 1970. urtea, taldearen, *Ez dok amairu*, eta entzuleriaren artean bazegoen halako konplizitate eta elkar ulertze bat. Urte hartarako talde kideek plaza eta emanaldi desberdinetan parte hartu zuten eta herriarentzat ezagunak ziren abeslariak baita hauek abesten zituzten kantak ere. Hala ere, kanten herrikoitze prozesuan *Loiola Irratia* bezalako herri irratiaren eta *Zeruko Argia* aldizkariaren lana ezinbestekoa izan zen.

Espektakuloari dagokionez, izena, Mikel Laboak 1969an *sortutako Baga biga higa, Lekeitio 2* kanta esperimentaletik hartu zuten eta *Sentikariaren* karte-la Jose Luis Zumeta eta Jose Mari Zabalak egin zuten.

17. LETE, X. "Kanta berria, erresistentzia abestia". In: *Jakin*, 4 zenbakia, 1977 Urria-Azaroa; 22.

Bertan mutil dantza, olerkiak, antzerkia, abestiak, margolarien lana, arkitektoen lana, txalaparta, tobera eta albokaren soinuak erakutsi nahi ziren, eta kide bakoitzak izen mitologiko bat ere bazeukan.

Ez dok amairuk Baga, biga, higa-rekin “gutzizko artea, arte totala” egin nahi zuen eta *Sentikarian* arte plastikoa, arkitektoen taldea, dantza eta antzerki taldeak, Argia eta Jarrai, olerkigintza, musikagintza eta gainontzeko arte guztiak agertu nahi zituzten, horrela arte guztien parte hartzea izango zuen espektakulu bat erakutsiz. *Ez dok amairu* taldeak argi zeukan *Baga, biga, higa*, irekita zegoen emankizun bat zela eta oraingoan *Ez dok amairu* talde bezala agertzen da publikoaren aurrean, momentu hartaraino oholtza gainean banaka agertzen baitziren; talde batu bat agertzen da, garaiko egoerak batasun bat eskatzen zuen, herriak zituen kezak indibidualak baino kolektiboak zirelako.

1971ko irailaren 26an *Zeruko Argiak* Joxean Artzeri egindako elkarrizketan *Sentikaria*-ren bitartez *Ez dok amairu*-k “gauza logiko bat egin nahi” zuela adierazten du, eta,

[...] bakoitzak bagenituen gure kanta eta gure poemak. Egin behar zena beraz, bakoitzaren emaitza edo aportazioa osatzea zen eta besteenarekin lotzea edo moldatzea [...] denak elkarrekin. Batek adibidez, kanta bat ekartzen zuen, kanta hori entzutean beti bururatzen zitzaion kanta horri zerbait erantsi behar zitzaiola edo beste bati, gitarraz edo esku soinuaz laguntzea¹⁸.

Ikuskizuna sortu izana European ematen ari ziren *Hair* izeneko ikuskizunekin baino, hobeago uler daiteke Oteizaren planteamenduekin. Garai hartan *Sentikaria*, etxean zein Estatu Espainiarrean, abangoardiako planteamendu bat izan zen eta faltan zegoen estetika bati, euskal estetika garaiakideari erantzuna eman nahi izan zion.

Espektakulu berriaren bitartez gizartearen buru hausteak islatu nahi zituzten baita momentuko errepresioa salatu, askatasuna, abertzaletasuna, euskara eta langileriaaren aldarrikapenak kaleratu aurrera begiraturaz.

4.1. Espektakuluaren egitura

Baga biga higa Sentikaria-ren esku programan irakur zitekeen moduan taldekideak Jesus Artze, Joxan Artze, Julian Beraetxe, Juan Miguel Irigarai, Jose Angel Irigarai, Lourdes Iriondo, Kepa Garbizu, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Jose-Mari Zabala, Jose Mari Irastorza eta Nekane Oiarbide izan ziren, bakoitzak euskal mitologiatik hartutako ezizen bat zuelarik. Horrela euskal herriko kondairek espektakuluan tokia izateaz gain, espektakuluarekin lortu nahi zen osotasuna zabalago geratzen zen Panpalos, Ziripot, Miel Otxin, Mari Eder, Perenauxea, Erlandeko, Anaïos eta Xagitekin.

18. “Baga, biga, higa...”. *Zeruko Argia*, 1971-09-26, 447 zenbakia; 1.

Egiturari dagokionez espektakuluak egitura zirkularra izan zuen, Zumetak eta Jose Mari Zabalak egindako karteletako irudian agertzen zen bezala. Egitura zirkularra lortzeko *Baga, biga, higa Sentikaria* Baztan dantzarekin hasi eta bukatuko zen, taldekide guztiak txistuaren doinuari jarraituz bukatzerik ez zeukan emanaldia aurkeztuz.

ikimilikiliklik!

Palabras mágicas, experimento individual y colectivo, que se prolonga, y se funde con la txalaparta, ritmo antiguo, aire nuevo, alrededor del cual se inicia una Baztan-go dantza, y el espectáculo comienza de nuevo¹⁹.

Lehenengo zatia *Xoxoak galtzen du mokoa* kanta tradizionalarekin hasten zen, txalapartaren soinuak jarraituta Nafarroako zein Zuberoako kanta tradizionaleri paso emanez, *O! Pello, Pello, Txorietan buruzagi erresiñula, Arranoak bortuetan, Belatza ahaidean* eta *Txoriñoak kaiolan*. Ondoren, toberaren soinuek taldeko olerkariaren poemekin egindako abestiei txanda emango zien, Lete, Jose Angel Irigarai, Joxan Arza eta Lourdes Iriondoren ahotsetan. Lehenengo zatia Joxan Arzaren hitzekin Benito Lertxundik *Txori txikia* abestuko zuen, taldekide guztiek kantaren amaiera elkarrekin abestuko zutelarik.

Bigarren zatia tobera jotzearekin eta denak batera Sanmartín de la moja koplak abestuz hasiko zen. *Altzateko jaun, Txoria txori, Haur bati*, musu gitarraren soinua, Xenpelarren *la guriak egin du bertsoen kantatzea, Umeek ere jakin dute*, Artzeren *Gizona eta lana* eta *Baga biga higa* kanta herrikoiak bigarren zatia osatuko zuten olerki ezberdinekin eta musu gitarraren soinuarekin tartekatuz.

Tradizioa eta modernitatea edo aire berriak bateratzen zituen espektakulu berri bat agertu zuen taldeak, norbanakoaren papera alde batera utzita talde izaera agertuz. Taldeak *Sentikariarekin* planteaturiko helburuak bete zituen. Urteak pasa ahala kantak zein *Baga Biga Higa Sentikaria* memoria kolektiboan geratu direlarik.

“Ez dok amairu” talde bat da. Talde bezala aurkezten da eta horrela funtzionatzen saiatu da, “canción protesta” egiten duten kantari soil batzuk izan beharrean bere estetika propioa bilatzen dutelarik²⁰.

4.2. *Baga, biga, higa... sentikaria*-ren helburuak

Sentikariaren programako pasarte batean honakoa irakurri zitekeen:

Erdian txalaparta dadukagu; antziñako lan-tresna, oriko gizonen lanaren adierazpena; taldearen beraren errorik sakonenetarikoa. Erdian dadukagula, beraz, kondairaren akelarrea –kanta zaharrak, tresna zaharrak, gure kantak, olerkiak, dantza–, gure

19. *Baga biga higa Sentikaria*-ren esku programatik aterata.

20. IRAOLA, Markox; XALBARDIN. “Euskal kantagintzaren aldaketak ulertu nahiz”. In: *Larrun 2* zenbakia, abendua, 1985; or. 61.

izatea zehar osaturikako sentikaria agertu nahi genuke. Eta orok parte hartuz, kondaira zehar osatzen eta aberasten joatea²¹.

Baga, biga, higa Sentikaria sortu zeneko helburuak lau puntutan laburbildu daitezke. Alde batetik *Ez dok amairu* taldearen lehendabiziko helburuarekin jarraituz, kantutegietan bilduak zeuden eta ezagutzen ez ziren kanta zaharrak taldekideek ikasiko zituzten ondoren jendeari erakusteko, horrela *O, Pello, Pello, Arranoak bortuetan, Belatxa, Xori erresiñula* edota *Altzateko jauna* kanta tradizionalak interpretatuko zituzten.

Bigarren helburua, garaiko edo beste olerkarien testuak musikatzea izango zen, horien artean J. A. Irigarainen *Txori eroa* olerkia, edota J. A. Artzeren *Sahatsa, Txori txikia* eta *Txoria-txori* musikatu eta interpretatu egingo zituzten. Hirugarrenez, musika esperimentalak edota musikagintzan bide berriak irekitzea zen taldearen helburua, *Gizona, lana eta makina* olerkiaren eta *Baga biga higa* kantaren interpretazioen bidez lortuz.

Laugarren eta azkeneko helburua, gal zorian zeuden musika tresnak berreskuratzea eta plazaratzea litzake, horrela *Sentikariari* hasiera txistua eta danbolinaren soinuak emango zioten, dantzaren lagungarri, txalapartaren soinua olerki eta kanten artean tartekaturik entzungo zen eta musu gitarren zein toberaren doinu eta erritmoek kanta ezberdinak lagunduko zituzten.

Horrela *Ez dok amairu*-k hasiera batean gal zorian zeuden alboka, esku soinua, musu gitarra tobera eta txalaparta erabili zituen ikuskizunean, nahiz eta ondorengo emanaldietan albokarekin eta panderoarekin ez jarraitu.

Ikuskizuna urte betez Euskal Herriko herri ezberdinetan eman zuten, Portugalete, Elorrio, Tolosa, Iruñea, Donostia eta Bilbon besteak beste. Kanpoan ere eman zituzten emanaldiak. Aipatzekoa da Bartzelonako Romea antzokian egindako agerraldiak eta Joan-Anton Benach-ek *Serra D'Or* aldizkarian 1971ko maiatzaren 15ean egin zuen kritika²²:

El grupo Ez dok amairu ha presentado en el Romea su espectáculo бага biga higa con un éxito muy remarcable. No es muy frecuente ver desde el gallinero hasta la platea toda la gente levantada y aplaudiendo con insistencia unos intérpretes. [...]

Baga biga higa es una muestra sorprendente de precisión y sencillez interpretativas cristalizadas en un espectáculo, en forma original. Esta originalidad es de agradecer en cuanto a que la comunicación popular en el País Vasco contrapuesta a los tópicos folkloristas de la receindumbre cantabra y de la prepotencia faringia de los chiccarrones del Norte que sustentan la tesis periféricas que tanta fortuna han dado. Las estampas regionales del estilo de Matías Prats quedan desacreditadas a través del espectáculo. El grupo Ez dok amairu reflexiona acerca del espíritu de su pueblo, totalmente al margen de la imagen artificial de postal. Y el espectáculo es popular. En nuestro trabajo, dicen los autores, consiste en un profundizar de la canción, de la música y en los instrumentos populares [...].

21. *Baga biga higa Sentikaria*-ren esku programatik aterata.

22. BENACH, Joan-Anton. "Un bonn spectacle el llengua euskara". In: *Serra d'or*, 140 zenbakia. 1971-maiatza; or. 57.

La txalaparta junto con los demás instrumentos musicales construyen el alma sonora del espectáculo. En el dominio de una acústica nueva, llena de sorpresas, [...] Las melodías, de una gran personalidad y fuerza expresiva, que cantan Xabier Lete, Benito Lertxundi, los hermanos Irigarai y Arza, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, entre otros, se asocian a sus instrumentos únicos y a un acompañamiento coral del grupo, el cual, subraya la idea de cada canción.

La Baztan-go dantza es el baile colectivo en el que se basa la representación. La fiesta acaba en forma de ciclo donde al final Laboa interpreta la canción Baga biga higa, que musicalmente representa la culminación de una difícil y policroma técnica de expresión en la cual el grupo se introduce en la experimentación con gran acierto durante los cinco años de andadura. Previamente hemos asistido a un recital poético musical en el que se anima a la colectividad y se habla acerca de la fidelidad y de la esperanza de una manera bien actual [...].

Si la primera parte contó con diversas alegorías a la libertad, la segunda se desarrolla mediante la consciencia colectiva donde de forma mística se plantean exigencias políticas. No acabo de entender la ingenuidad que en algunos comentarios atribuidos al espectáculo, por ejemplo, que pueden tener de ingeniosos los versos de Xenpelaar en la canción gureak egin du [...].

Baga biga higa es una combinación de danza, canción y teatro, con un montaje escénico, el espectáculo ofrece unas soluciones plenamente acertadas. Cabe destacar una estudiada iluminación que introduce un formidable juego de luz y sombras al servicio del momento, dramático o alegre, melancólico o irónico, del espectáculo. La simplicidad y la preponderancia del trabajo en grupo sobre la actuación individual es, finalmente, una característica que acentúa el valor intrínseco de esta fiesta oratorio que es baga biga higa.

Espektakuluak urte bete inguru iraun zuen oholtza gainean, eta 1971en urterako Ez dok amairu taldean arazoak somatzen ziren, ondorioz 1972en urteko eguberrietarako taldea desegin zen, bakoitza bere kabuz lanean jarraitu zuelarik.

Horrela 1970. hamarkadan musikagintzan bigarren belaunaldi bat sortu zela esan daiteke, beti ere aurrekarien lan ildoei jarraituz eta kasu askotan oholtza konpartituz, plazaz plaza ibiliko dira “euskal nortasuna musikaz jantzi”²³, garaian “euskal kantua modan zen Euskal Herriko bazter guztietan, eta horrek hamabost urtetan oso maila ederra atxiki zuen” aitortzen zuen Niko Etxartek elkarriketa berdinean.

4.3. Baga biga higa Sentikaria eta gero, zer?

4.3.1. Profesionalizazioa

1972. urtean aldaketak eman ziren kantagintzan, *Ez dok amairu* desagertuta belaunaldi berrien txanda eta ikuskizun berriak kaleratu ziren, *Zazpiribai* (1972) edota *ikimilikiliklik* (1975), baita profesionalizazioaren inguruko eztabaida ere.

23. ARRUTI, Ane; BILBAO, Anartz. “Euskal kantagintzaren nostalgia”. In: *Gara*, 2009-03-13.

Diktadore handiaren heriotzak badu ondoriorik euskal kantaren arloan ere. Honek bere errepresio esparru murrizta zartatua aurkitzen du eta harriturik ikusten, zentsurak ez duela jadanik sehaska kanta bat edo XIX. mendeko bertso klasiko batzu abestea debekatzen. Tamalez, diskografi industriaren eragileak ere ohartzen dira gertaera horretaz, eta baliatzea erabakitzen dute. Hor doaz herriz herri, mutiko gazte eta trebe bila, hauentzat bizitza laburreko baina industriarentzat etekin luzeko kontaezin ahala diska sortu eta promozionatuz²⁴.

Eztabaidaren arrazoi nagusia musikaren kalitateari eta musikarien profesionaltasunarekin zer ikusi zuzena izan zuen,

Ez dok amairu taldearekin artista, kantaria, desmitifikatu, dignifikatu, gizakiagotu eta herrikoitu duen heinean eta entzule eta kantariaren arteko urruntasuna gubxiagotu duenean, gaztea berez ausarta delarik eta parte hartzeko aukera izaten duenez, gogo biziz joaten da kitarra hartuta ikusten duen eszenatokira berea egitera. Eta horrela “Ez dok amairu”ren eraginez esan daiteke hasten dela gazte andana bat euskaraz kantatz²⁵. Horrela idatzi zuten Markox Iraolak eta Xalbardinek 1985en urtean Larrun aldizkarian argitaraturiko artikuluan. Hortaz, kantariak nonahi agertu ziren, disko etxeek bultzatuta ere, azkenean kanta sortzeko musikan baino mezuan baitzegoen indarra. Baina Ez dok amairu taldearen barruan eztabaidak eta aldaketarako urratsak eman nahi izan ziren, Ez dok amairu-k kantaldien estrategia bat planteatzeko ahalegina egin zuen. Alde batetik, kantaldien emateko toki aukeren azterketa razional bat eginez, prioritateak eta tokian tokiko baldintzapenak kontutan hartuz. Bestetik, kantaldi bakoi-tza nolabaiteko osotasun konplementatzaile bezala begiratzuz, bai mezu aldetik, berdin estilo aldetik, horretarako kantarien aukera ahalik eta egokiena eginez. Hirugarrenik, infraestruktura teknikoa zaintzen saiatuz. Laugarrenik, kantarien profesionaltasun minimo batetarako bideak zainduz, diru aldetiko baldintza duintasunezkoak ezarritz. Boskarrenik, antolatzaileekiko harremana zainduz²⁶.

Ez dok amairu taldeak bere baitan planteatu zuen profesionalizazioaren ardura baita arte totalaren ideia plasmatzearen beharra. Hausnarketa prozesu horren ondorio gisa *Baga Biga Higa Sentikaria* har daiteke, non emanaldien kalitateari begiratzear gain taldeak, arte adierazpen gehienaren bateratzea agertu nahi izan zuen espektakuluaren bidez.

Baina profesionalizatzeko prozesuaren eztabaida eta kantagintzaren barruan eman behar ziren aldaketen beharra 1970en hamarraldiaren erdialdetik aurrera emango zen bi arrazoi nagusiengatik, alde batetik bizi ziren aldaketa politikoen eraginagatik eta gizartearen eskakizunak ezberdinak zirelako bestetik.

Aipatutakoaren harira Xabier Letek eta Antón Valverdek *Deia* egunkarian 1977. urtean musikaren egoeraz horrela mintzatu ziren²⁷:

24. IRIONDO ETXANIZ, Luis. “Euskal Kanta Berriari hurbilketa kritikoa”. In: *Jakin*, 4 zenbakia. 1977 Urria-Azaroa; or. 29-44.

25. IRAOLA, Markox; XALBARDIN. “Euskal kantagintzaren aldaketak ulertu nahiz”. In: *Larrun* 2 zenbakia, abendua, 1985; or. 61.

26. LETE, Xabier. “Kanta berria, erresistentzia abestia”. In: *Jakin*. 4 zenbakia. 1977 Urria-Azaroa; or. 16-28.

27. L. A. A. “Euskal gizartea aldatzen den neurrian aldatu beharko du”. In: *Deia*, 1977-09-01.

Lehen dena zen justifikagarria. Hemendik aurrera kantari bakoitzak bere presentzia justifikatu beharko du. Orain arte, euskal kanta eskakizunekoa eta eragilea izan da; aurrerantzean meditazizkoa izan beharko du. Euskal gizartearen errealitatea konplejoagoa izango da, eta adaptazio bat egin beharko da” diote aho batez Antón Valverde eta Xabier Lete kantariek, euskal kantaren etorkizuna aztertzerakoan.

- A.V.: Azken hilabeteotako kantaldiak mitin hutsak izan dira.
- X.L.: Politika zentzua ere argitu beharra dago. Nazio baten oinarritzko eskakizun-burruka izan da batez ere orain arte. Eta politika honetan, kantari guztiok, gehiago edo gutxiago, aritu izan gara. Baina ez gaitu politikak egin, [...]
- D.: Zelan ikusten duzue euskal kantagintzaren maila?
- A.V.: Erreferentzia bi ditugu. Bat barrura begira, eta beste kanpokoarekin konparatuz. Barrura begira, euskal kantak gorakada handia egin du [...] bai gaiei buruz, eta bai musikaren aldetik ere, hobetuz doa. Kanpokoarekin konparatuz, Galicia baino gorago gaude, baina Katalunia baino beherago [...] Llach baten diskoarekin konparatuz eta, lotsagarri da gure musika maila. Poesiari buruz ez dago horrenbesteko alderik. Kantagintzan, beste hainbat alorretan bezala, oso urruti gaude Kataluniatik. [...] hango kantariek batz bestea, hemengoek baino oinarritzko preparazio gehiago dute. [...] Katalunian diskaetxeak arriskatu dira. [...] Euskal Herrain ez da inoiz Katalunian izan den figura garrantzitsurik egon. Gure artean azken bolada honetan atera izan diren diskoak ere nahiko onak dira. Gorka Knör, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Iñaki Eizmendi eta Benito Lertxundiren azken diskoak onak dira teknika aldetik. [...]
- D.: Zertan dago euskal kantaren etorkizuna?
- X.L.: Euskal kantaren etorkizuna hiru alberdi desberdinetan planteatu behar da: kantarien mailan, kantagaietan eta kantaldietan. Lehen puntuari buruz gaurregun kantari gehiegi dago. Selektzio bat egingo da [...] Kantaririk ez da inoiz faltatuko, gizarteak eskatzen duenaren erantzun bezala. Gaiei buruz, euskal kanta berria sortu zenetik, euskal burruka izan da ia gaur arte kantagairik bakarra. Hemendik aurrera Euskal gizartearen errealitatea konplejoagoa izango da. Eta kantagintza desarrolatzen ez bada, aspergarri bihurtuko da. Kantari eta kantaren balio intrinsekoak gehiago izango dira kontutan hartuak: poetikotasuna, musikaltasuna, estiloa, gizartearekiko erantzun berri bat, konplejoagoa, aberatsago, sakonago. Kanta politikoa ere izango da, ez mitin hutsa. Kantaldiei buruz, berriz, guztia goitik behera aldatu beharra dago. [...] Kantaldiak ez dira planifikatzen, luzeegiak dira, ekilibrio gutxi, guztiz inkoherenteak. Lau, bost edo sei kantari bildu, eta bakoitzak berea botatzeak amaitu egin behar du. Teknikari, giroari, eta kantariaren inguruko markoari gehiago begiratu beharko zaio.

Aldaketaren beharra islatu zuten agerturiko elkarrizketan bi musikariek, eta ez nolanahiko aldaketak. Kantarien maila hobetzearen beharra, kantatuko ziren gaiak hobeki jorratzea eta kantaldien antolamendu orokorrean egituratze baten beharra, profesionalizazioa.

M. Iraolak eta Xalbardinek profesionalizazioaren inguruko hausnarketan, euskal artistak bi taldeetan banatuak somatu zituzten,

Frankismoaren azken urteek eta bere inguruan sortutako ilusioek dakarte euskal kantarien ugaritze izugarri bat, herrietan kantaldirik gabeko festarik ez dagoelarik. Errealitatea kontraesan bezala dago, kantagintza errealitatearekin oso loturik, ondorioak ere gisa askotakoak erakartzen ditu.

Abeslarien artean bi joera daude beti eztabaidan eta nolabait borrokan. Batzuek koiuntura politikoari zuzen erantzuten saiatuko dira, beste batzuek aldiz, kantagintzari eremu autonomo bat ematea proposatzen dute, abeslariak beren artista funtzioa jokatu behar duelarik²⁸.

5. EZ DOK AMAIRU ETA EUSKAL GIZARTEA

(Kantagintza berriak) Herriaren onespena izan zuen, eta horrekin aski eta gehiegi. Herriak, askotan ohi duen intuizio berezi eta kontzientzia argiz, euskal kanta berri baten sortzea garrantzitsutzat jo zuen, eta kantarien mezuarekin identifikatu zen, ez beti kezka zalantzarik gabe, baina bai beti espresio berri hura ulertu eta justifikatzeko gogo biziz²⁹.

Aldizkari berdinean, Xabier Letek idatziriko *kanta berria, erresistentzi abestia* izeneko artikuluan kantari eta entzuleriaren arteko hartu emanaz dihardu, prozesuan lau fase ezberdinduz. Lehendabiziko fasea edo atala

[...] errekupeziokoa, kantaria eta entzulearen artean artesi eta bereizketarik ez zegoeneko. Bigarren fasea, asperdura pixka bat sortzen hasi zenekoa; estetika bidez eta espresio bidez asperdura eta monotonía gaititu nahirik, orduan izan zen, espektakulo, ikuskari era "sentikariaren" sorrera, Baga biga higa. Hirugarren fasea, rezital berezi eta kantaldi masiboena. Laugarren fasea, aldaketa kritiko baten beharretatik sortzen ari den kantakerarena, moldez eta mamiz emanaldiak aberastu nahirik, tematika zabal eta era berean barneratuago baten ibilbidetatik, kanten estetikari arreta haundiagoa jarritz, eta kantak, behin eta betirako, funtzionaltasun politikoaren murrizketatik askatu nahirik³⁰.

Baina laugarren fasea, jasandako politizazioarekin apurtu nahia, gizartearen ez zen ongi ulertua izan, diru arazoari egotzi zioten eta Belen Oronoz-ek ondorioztatzen bezala, profesional bilakatzea ez zen diru kontua; euskal kantagintzari merezi zuen maila ematean zetzan auzia; duintasun kontua zen³¹.

Bestalde, kontutan izan behar da euskal kantagintzak sektore zabal batekin izan zuela hartu emana eta euskara ulertzen ez zutenek ere kantagintzaren mezua beraien gain jaso zutela, identifikazio prozesua emanez. Marc Biosc-aren iritziz prozesu horrek garbi erakusten du kantagintzatik ondorio komunikatibo eta estetiko berehalako bat hedatzen zela, gauzatzen hasi berria zen proiektu kolektibo horren sinbolo eta erreferente bilatzeko.

Kantagintza nazio eraikuntzarekin eta proiektu politiko batekin loturik ulertu behar da, eta horrela islatzen du Josu Amezagak³²,

28. IRAOLA, Markox; XALBARDIN. "Euskal kantagintzaren aldaketak ulertu nahiz". *Larrun*, 2 zenbakia, abendua, 1985; or. 61.

29. LETE, Xabier. "Kanta berria, erresistentzia abestia". In: *Jakin*, 4 zenbakia. 1977 Urria-Azaroa; or. 16-28.

30. Id.

31. ORONOZ, Belen. *Gazteri berria, Kantagintza berria*. Donostia: Erein, 2000; or. 111-114.

32. AMEZAGA, Josu. "Herri kultura eta kultura popularrak". Leioa: UPV/EHU, 1995eko apirila; or. 269-283.

Euskal Kantagintza Berriaren azpian bestelako mugimendu sakonago eta zabala-goa ikusi behar da, garaiko musika moldeez haratago: euskal nazionalismoaren eta kulturaren berriztatze eta berpizkundearen mugimendua.

Kantagintzaren bidez, Euskal kultura etnikoaren berreskurapenaz gain, Euskal kantagintza berriak bere hastapenetatik gizarteko arazoekiko konpromezuzko mezu bat hedatu zuen.

Euskal Kantagintza Berria beraz, nazio arazoari loturik agertzen da hasieratik, baita euskal gizartean zein kanpoko herrialdeetan suertatzen diren beste zapalkuntza motekiko halako sentiberatasun edo elkartasunezko mezu bat agertzen zaigu. Hortaz, Euskal Kantagintza Berriak hedapen handia izango du euskal gizartean Ez dok amairu taldearen eskutik hasieran eta ondoren sorturiko kantagile eta talde berrien eskutik.

Euskal kultura eta euskara ez ziren herri izateko berreskuratu beharreko ezaugarri soilak, eguneroko arazoei aurre egiteko hizkuntza eta kultura baizik.

Euskal Kantagintza Berriko kantagileen eta herri sektoreen arteko komunikazioa areagotuz doan heinean, kantagintza berriaren proposamenen eta herriaren problematikaren arteko harreman ere areagotuko da. Maila politiko zein sozialean sistema menperatzaileen aurkako mugimendua zabalduz doa, kantagintza berria mugimendu horren ispilu eta eragile bihurtuko da.

6. ONDORIOAK

Katalunia eta Euskal Herriko kantagintzen arteko hartu emanak horrela definitu zituen Mikel Laboak elkarriketa batetan³³,

[...] bastantes estrechas desde hace algo más de 14 años. Cuando estudiaba aquí (Bartzelona) conocí al movimiento Setge Jutges formado por Guillermina Motta, Raimon. Por otra parte entré en contacto con cantantes euskaldunes L. Iriondo, B. Lertxundi, Arza... y formamos el grupo Ez dok amairu. Desde entonces hemos colaborado, nosotros acudimos a cantar aquí y ellos acudían a cantar a Euskadi.

Hortaz, ondorioztatu daiteke bi mugimenduen arteko hartu emana arlo profesionalean emanaldiak antolatzeke adinakoa zela, ez oso sakona, nahiz eta maila pertsonalean kantari batzuen arteko hartu emana estua izan zela ez du zalantzan jartzen Belen Oronozek. Bi mugimenduen arteko lotura eskasaren ondorioz uler daiteke helburu ezberdintasuna. Katalunian jaiotako *Els Setge Jutges* taldea ez bezala, *Ez dok amairu* mugimendu kulturalak, hasieratik, kanta tradizionalaren berreskuratzea izango du helburu nagusizat, ondorioz euskara eta nortasuna indartzeko kantagintza bidea izanik.

Helburua lortzeko ezinbesteko bilakatu zen talde lana nahiz eta Belen Oronozek³⁴ ondorioztatzen du Katalan mugimenduaren eta euskal mugimenduaren artean talde izaeraren kontzeptua ez zela berdin eman,

33. Egin, 1977-10-30. "Festival-homenaje a la resistencia". Albistearen amaieran Mikel Laboari egindako elkarriketaren pasartea.

34. OROÑOZ, Belen. *Gazteri berria, Kantagintza berria*. Donostia: Erein, 2000; or. 111-114.

[...] katalanena ez litzateke, nire ustez, benetako taldea, ez baitut talde nahi edo kontzientzia hori euskaldunengan bezain garbi ikusten. Haiena “norbanakoen batura” gisa dakusat gehiago, helburu eta ideologia komun batek multzo berean biltzen zituen norbanakoena. Euskal talde lanaren ondorioa Baga Biga Higa Sentikaria izan zen, baita taldearen desegitea ere.

Kantagintza berriaren bidez eman zen komunikazio prozesuaz gain, kanten mezuarekin batera kantari eta entzuleriaren arteko inplikazioa eman zen, kantaldiak eguneroko aldarrikapenen gune bihurtuz eta kantarien papera bikoiztuz, euskal nortasunaren eta euskararen aldeko politikagintza eginez.

Jarduera horretan bai Euskal Herrian zein Katalunian garrantzitsua izan zen hizkuntzaren erabilera, berreskuratze nahia presente baitzegoen, baina Biosca-ren ustez ez zen modu berdinean bi herrialdeetan egin, euskal kantagintzan euskarari kanta gehiago eskaini zizkion, nahiz eta bi kasutan³⁵

[...] hizkuntzaren berreskuratzea kezka nagusietako bat izango da nortasun katalana hedatzearen alde ezkutuan lan egiten duten eragileen artean. Handik eta hemendik, hizkuntza duintzeko helburua duten instituzio kulturalak sortzen hasten dira, zeinek, bide batez, berrindartzen hasia den nazionalismoak hartzen duen txertoa sinbolizatzen baitute. Bai katalan kultura sustatzen bai ideologia nazionala berriro zuzentzen parte hartuko duten beste pertsona askorekin batera.

Euskal kantagintzan hizkuntzak paper garrantzitsuagoa jokatzen du katalan kantagintzan baino. Izan ere, hizkuntza nahi handiko proiektu politiko/identitario bat egituratzeko bitarteko gisa erabiltzen da.

Ez dok amairu-ko kideek interpretaziorako gal zorian zeuden kanta tradizioalak edo Hego Euskal Herriko biztanleentzat ezezagunak ziren kantak aukeratu zituzten, horretarako Ipar Euskal Herrian zein Nafarroan jasotako kantetara joz. Iraganera begiratu zuten, bertatik erreferentzia historikoak hartzeko. M. Biosca soziologo katalanaren iritziz kantagintza katalanak berriz ez zuen atzera begiratu³⁶

[...] desberdintasun nazionalak eta kulturalak mito edo arketipoen bidez proiektatzeko oinarri izan zitekeen elementu eta sinboloen bila. Berezko munduak gogoratu ordez, elementu horietatik guztietatik aske zeuden mundu berriak imajinatu zituen.

Euskal Kantagintzak iraganari begiratu izanak “mugak gainditu eta mitologia-ri dagozkion elementuak erakartzeko, edota euskal izatearen idiosinkrazia bera markatzen duten arketipo mitikoak eraikitzeke erabili izan zuen”³⁷.

Berreskuratze lanetan kantak, testu inguru berrian birdefinituak izango dira, 1960. hamarkadako gustuetara moldatu ziren, batez ere erritmo aldaketen bidez

35. BIOSCA, Marc. *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka? Euskaldunak eta katalanak zein bere nazioari kantari*. Irun: Alberdania, 2009; or. 151-168.

36. Id.

37. Id.

eta musikari bakoitzak kantari ematen zion ukitu propioarekin batera. Ondorioz funtzio, esanahi eta betebeharrak berriak lortuko zituzten, momentuko egoerari erantzunez. Kantek definizio berri bat hartzen dute, talde izaera bultzatuz.

Tradizioari begiratzeaz gain aurrera ere begiratu zuten *Ez dok amairu*-ko kideek, talde gisa *Baga Biga Higa Sentikaria* sortuz, nahiz eta ordurako Mikel Laboa bezalako musikariak arlo esperimentaleko kantak sortuak zituen, bide zein estetikak berriak ireki asmoz.

Sentikaria-n arte adierazpide ezberdinak lotzeaz gain kantaldiak egitura propioa hartuko zuen. Tradizioa, euskara eta bide berriak batera agertuko dira, euskal kulturaren erroetatik modernitaterako bidean, nortasunarekiko batasuna agertzea posible zela adieraziz.

1960. hamarkadan bizi zen egoera politiko, ekonomiko eta soziala presente izanik, *Ez dok amairu*-ko partaideek interpretaturiko kantek gizarte erreferentzia izan zuten, gizartean funtzioa zein espazioa bete zuten, gizarte nazioartean eragin izanik. Horretarako, Euskal Herrian Katalunian ez bezala, euskaraz eta hizkuntzari kantatzeaz gain lurraldetasunaren presentzia elementu sinbolikoen bidez agertu izana ezinbesteko elementua bilakatzen da izan zuen gizarte erreferentzia lortzeko.

Kantaldien bidez, kantak herrikoiak bihurtu ziren eta belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho eta hamarkada ezberdinetan jaiotako taldeek egindako bertsioen bitartez erreperitorioa egun arte transmititu izan da.

Herriko bihurtze horretan esan daiteke 1960. hamarkadaren erdialdetik 1970en hamarkadaren amaiera bitartean kaleratu ziren *Egun da santi mamiña*, *Zenbat gera*, *Seaska kanta*, *Altzateko jaun*, *Txori txikia*, *Xoxoak galdu*, *Androkanto Bagara*, *bagare*, *Euskal Herri rock and roll* edota *Txoria txori* bezalako kantak, herrikoiak izateaz gain egungo erreperitorioaren barruan tradiziozko kantatzat hartuak direla, alde batera utziz nola, nork eta noiz sortuak izan diren.

Horrela *Ez dok amairu* taldearekin hasi zen mugimendu berria eta kantatzeko modu berriak bere ondorengoak izan zituen. Kantagintza Berriaren bigarren belaunaldia sortu berri zen talde zein bakarlarietaz osatua, Txomin Artola, Niko Etxart, Urko, Iñaki Eizmendi, Gontzal Mendibil edota Peio eta Pantxoa, baita bide berriak irekiko zituzten gazteek sorturiko taldeak ere. Ondorioz, kantagintza berria gaur egunera arte heldu den korrontean bilakatuz.

Egun, 2009. urtean, garai hartako jaialdiak gogoratzen dira *gu gira* izeneko diskoa zein kantaldiekin, helburua, "euskal nortasunaren pizkunde garaiko urteak gogora ekartzea"³⁸ izanik, hurrengo lerroetan kantagintzaren lana laburbilduz:

38. ARRUTI, Ane; BILBAO, Anartz. "Euskal kantagintzaren nostalgia". *Gara*, 2009-03-13.

Gizarte eragileak ginen, eta hasi ginenean asko lagundu genuen ikastolak finkatu eta euskara bultzatzen gure kantu eta kantaldien indarrarekin, eta era berean ia-ia ez ginen kantariak, politikariak ginen, eta musikarekin muntatzen genituen gure mitinak. Garai arriskutsuak eta gogorak ziren eta beti bukatzen genuen polizia edo guardia zibilaren aurrean (Urko), baina bestalde, euskal kantua modan zen Euskal Herriko bazter guztietan (Niko Etxart), eta egun, gure kantuak jada herrikoi bihurtu dira eta Euskal Herriko memorian daude (Niko Etxart)³⁹.

7. BIBLIOGRAFIA

- ALDEKOA, Iñaki. "La actividad cultural de los años 60". In: *EuskoNews&Media*, 77 zenbakia. 2000/5/5-12.
- AMEZAGA, Josu. *Herri kultura eta kultura popularrak*. Leioa: UPV/EHU, 1995eko apirila.
- ARISTI, Pako. *Euskal kantagintza berria, 1961-1985*. Donostia: Erein.
- ARRUTI, Ane; BILBAO, Anartz. "Euskal kantagintzaren nostalgia". In: *Gara*, 2009-03-13.
- BENACH, Joan-Anton. "Un bonn spectacle el llengua euskara". In: *Serra d'or*, 140 zenbakia. 1971-maiatza.
- BIOSCA, Marc. *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka? Euskaldunak eta katalanak zein bere nazioari kantari*. Irun: Alberdania, 2009.
- CLAUDÍN, Victor. *Canción de autor en España, (apuntes para su historia)*. Madrid: Júcar, 1982.
- CRUCES, Francisco; et al. *Las culturas musicales. Lecturas de etnomusicología*. Madrid: Trotta, 2001.
- Egín. "Festival-homenaje a la resistencia". 1977-10-30.
- ETXANIZ, Nemesio. *Kanta kantari, aur jolasak, maite kantak, izadi abestiak*. Donostia, 1951.
- GONZALEZ LUCINI, Fernando. *De la memoria contra el olvido: Manifiesto Canción del Sur*. Madrid: Junta de Andalucía, consejería de cultura ; lberoautor promociones culturales, 2004.
- . *Veinte años de canción en España (1963-1983) 1. de la esperanza/ apéndices*. Madrid: Grupo Cultural Zero, 1985.
- . *Veinte años de canción en España (1963-1983) 2. Libertad, identidad y amor*. Madrid: Grupo Cultural Zero, 1985.
- . *Crónica cantada de los silencios rotos: voces y canciones de autor, 1963-1997*. Madrid: Alianza editorial, 1998.
- IRAOLA, Markox; XALBARDIN. "Euskal kantagintzaren aldaketak ulertu nahiz". *Larrun*, 2 zenbakia. 1985, abendua.
- IRIONDO ETXANIZ, Luis. "Euskal Kanta Berriari hurbilketa kritikoa". In: *Jakin*, 4 zenbakia. 1977 Urria-Azaroa; or. 29-44.
- Jakin*. "Euskal kanta berria". *Jakin*, 4. zenbakia. Arantzazu, 1977.eko urria-abendua.

39. Id.

- L. A. A. "Euskal gizartea aldatzen den neurrian aldatu beharko du". In: *Deia*, 1977-09-01.
- LETE, X. "Kanta berria, erresistentzia abesti". In: *Jakin*, 4 zenbakia, 1977 Urria-Azaroa; 16-28.
- MARTÍ I PEREZ, Josep. *El Folklorismo, uso y abuso de una tradición*. Barcelona: Ronsel editorial, 1996.
- MENDIOLA, José Mari. "Lurdes Iriondo: "Xabier Lete es mucho mejor cantante que yo". In: *El Diario Vasco*, 1983-06-19.
- MIXEL LABEGUERIE-REN LAGUNAK ELKARTEA. "Michel Labéguerie, Omenaldia-hommage". *Lankidetzan bilduma*, 22. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001.
- ORONÓZ, Belen. *Gazteri berria, Kantagintza berria*. Donostia: Erein, 2000.
- OTEIZA, Jorge. *Ejercicios espirituales en un túnel, en busca y encuentro de nuestra identidad perdida*. Donostia: Hordago, 1983.
- TORREGO EGIDO, Luis Mariano. *Canción de autor y educación popular*. Madrid: De la Torre, 1999.
- TURTÓS, Jordi; BONET, Magda. *Cantautores en España*. Celeste, 1998.
- URZELAI, Peio. *Mikel Laboa*. Donostia: Elkar; aek, 1995.
- Zeruko Argia*. "Mikel Laboa". 1965-08-01, 127 zenbakia.
- Zeruko Argia*. "Baga biga higa...". 1971-09-26, 447 zenbakia.

8. DISKOGRAFIA

- IRIONDO, Maria Lourdes. Belter, 1967.
- IRIONDO, Maria Lourdes. *Kanta zaharrak*. Belter, 1968.
- IRIONDO, Maria Lourdes. *Kanta zaharrak*. Belter, 1968.
- IRIONDO, Maria Lourdes. Belter, 1967.
- LABEGUERIE, Mixel. *Mixel Labeguerie-ren 8 kantu*.
- LABOA, Mikel. *Azken*. Baiona: Goiztiri, 1964.
- LABOA, Mikel. Baiona: Goiztiri, 1966.
- LABOA, Mikel. *Bertolt Brecht*. Baiona: Goiztiri, 1969.
- LABOA, Mikel. *Herri gogoa*. 1969.
- LABOA, Mikel; VALVERDE, Antón; OSKARBI; LETE, Xabier; LERTXUNDI, Benito; PANTXOA eta PEIO; IRIONDO, Lurdes; HAIZEA taldea. *Euskal abesti berria/ La nueva canción vasca*. Bizkaiko aurrezki kutxa/ Caja de ahorros vizcaina-k argitaratua 1978e urtean.
- LEKUONA, Julian. Edigsa, 1968.
- LERTXUNDI, Benito. Cinsa, 1967.
- LERTXUNDI, Benito. *Egia*. Cinsa, 1967.
- LERTXUNDI, Benito. Edigsa, 1968.

LERTXUNDI, Benito. Herri Gogoia, 1969.

LETE, Xabier. EDIGSA-HG, 1969.

LETE, Xabier. *Lau kanta*. EDIGSA-HG, 1968.

OSKARBI taldea. Herri Gogoia, 1969.